


**EUSKAL HERRIKO  
AGINTARITZAREN  
ALDIZKARIA**



**BOLETÍN OFICIAL  
DEL  
PAÍS VASCO**

Itundutako posta-ordaina: 8/98

Internet  
[www.euskadi.net](http://www.euskadi.net)

Franqueo concertado: 8/98

Administrazioa: Donostia kalea, 1  
Legezko Gordailua: VI - 286 - 78 - VITORIA-GASTEIZ

Administración: c/ Donostia-San Sebastián, 1  
Depósito Legal: VI - 286 - 78 - VITORIA-GASTEIZ

**I. eta II. alezatiak**

**Xedapen Orokorrak**

**GARRAIO ETA  
HERRI LAN SAILA**

AGINDUA, 2007ko uztailaren 12koa, Garraio eta Herri Lan sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko errepide-sareko bide-zoruak neurtzeko araua onartzen duena.

**Fascículos I y II**

**Disposiciones Generales**

**DEPARTAMENTO DE TRANSPORTES  
Y OBRAS PÚBLICAS**

ORDEN de 12 de julio de 2007, de la Consejera de Transportes y Obras Públicas, por la que se aprueba la norma para el dimensionamiento de firmes de la red de Carreteras del País Vasco.

## ERANSKINA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO  
ERREPIDE SAREKO BIDEZORUAK NEURTZEKO  
ARAUA1. KAPITULUA  
1 SARRERA

Euskal Autonomia Erkidegoan pertsona eta merkanztzia asko mugitzen dira, batez ere, alde batetik, Euskadi Europaren eta Iberiar Penintsularen artean dagoelako (Ardatz Atlantiar eta Ebro Bailararen artean, eta Europarekin Iparraldearen eta Hegoaldearen komunikazio-ardatzean egoteak, Estatuaren eta Europaren komunikazio-sarean derrigorrez igaro beharreko lurralde bihurtzen du), eta, bestetik, jarduera ekonomiko handia ematen delako, neurri batean, posizio estrategiko honen ondorioz industria-sektoreak garrantzia handia duelako. Mugikortasun hau, batez ere, errepide bidez gauzatzen denez, sareko errepide askok trafikiko handia dute. Bestalde, eskualdearteko eta herriarteko lotura asko, trafikiko txikiko bideen bidez egiten dituzte.»

Trafikoaren banaketa berezia, ezaugarri klimatologikoa, lurzoruen itxura, materialen erabilgarritasuna, eta errepideak kudeatu eta ustiatzen administrazio eskudunek garatutako esperientzia ikusita, bidezorua neurtzeko berezko arau teknikoaren beharra eskatzen dute.

Azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7.a.8) artikuluan xedatutakoaren arabera, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Organoek, lurralde hauetatik igarotzen diren errepideak planifikatu, proiektatu, eraiki, kontserbatu, aldatu, finantzatu, erabili eta ustiatzeko eskuduntza dute. Multzo honetatik kanpo daude, estatu-mailako eskuduntza duten autobideak. Hala ere, bide-sarea jarraitua eta elkar lotua dagoela, eta, trafikoen garrantzia kontuan hartuta, administrazio mugakideetako sarean luzapenak diren edo Lurralde Historikoen arteko konexio diren Euskal Autonomia Erkidegoko sarean artean behar bezalako koordinazioa ziurtatzeko, 27/1983 Legearen arabera, Eusko Jaurlaritzak Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Plan Orokorra onartu behar du, eta Lurralde Historikoen, Errepideen Plan Orokor horretan bilduko dituzten aurreikuspenak, helburuak, lehentasunak eta hobekuntzak aztertu behar dituzte.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Historikoen errepide-sareko bidezoruen sekzioak neurtzeko Arau Tekniko hau, Eusko Jaurlaritzaren eta CEDEXeko Errepideen Azterketarako Zentroaren arteko elkarlanerako hitzarmenaren esparruan, Eusko Jaurlaritza,

## ANEXO

NORMA PARA EL DIMENSIONAMIENTO DE  
FIRMES DE LA RED DE CARRETERAS DEL PAÍS  
VASCOCAPÍTULO I  
1 INTRODUCCION

En la Comunidad Autónoma Vasca se da una elevada movilidad de personas y mercancías, generada, de un lado, por la ubicación geográfica de Euskadi respecto de Europa y el resto de la Península Ibérica, situada entre el Eje Atlántico y el Valle del Ebro y en el eje de comunicación Norte-Sur con Europa, que determinan que sea un territorio de paso obligatorio en la red de comunicaciones estatal y europea, y, de otro, por la intensa actividad económica con un importante peso relativo del sector industrial, consecuencia en parte de esta posición estratégica. Esta movilidad es absorbida en su mayor parte por la carretera, por lo que un elevado porcentaje de la red soporta tráfico muy altos. Por otro lado, muchas relaciones intercomarcales y locales se canalizan a través de vías con baja intensidad de tráfico.

La peculiar distribución del tráfico unido a las especiales características climatológicas, terrenos existentes, disponibilidad de materiales y la experiencia desarrollada por las administraciones competentes en la gestión y explotación de las carreteras, conducen a plantear la necesidad de una norma técnica propia de dimensionamiento de firmes.

En virtud de lo dispuesto en el art. 7.a.8) de la Ley 27/1983 de 25 de noviembre, los Órganos Forales de los Territorios Históricos de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa ostentan la competencia de planificación, proyecto, construcción, conservación, modificación, financiación, uso y explotación de carreteras que transcurren por su territorio, con la excepción de las autopistas en régimen de concesión estatal. Sin embargo, dado el carácter de continuidad e interrelación de la red viaria, y al objeto de asegurar la debida coordinación entre las redes del País Vasco que, atendiendo a la importancia de tráfico, son prolongación de las redes de otras administraciones limítrofes o de conexión de los Territorios Históricos entre sí, la Ley 27/1983 establece que corresponde, de un lado, al Gobierno Vasco la aprobación del denominado Plan General de Carreteras del País Vasco, y de otro, a los Territorios Históricos contemplar las previsiones, objetivos, prioridades y mejoras que se recojan en dicho Plan General de Carreteras. Este documento de planificación establece las normas técnicas que se pondrán en vigor en las redes de carreteras de las administraciones vascas.

La presente Norma Técnica para el dimensionamiento de secciones de firme de la red de carreteras de los Territorios Históricos del País Vasco es el resultado del trabajo realizado por la comisión de seguimiento integrada por técnicos del Gobierno Vasco, las Diputacio-

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundi eta CEDEXeko teknikariek osatutako jarraipen-batzordeak egindako lanaren emaitza da. Dokumentua behin betiko idatzi aurretik, estatu-mailan errepideen bidezorua diseinatu eta eratzen esperientzia handiko teknikariek osatutako adituen batzordeak aztertu zuen.

Arauan, Euskal Autonomia Erkidegoan eraikiko dituzten bidezoruen proiekturako eta eginak daudenak berritzeko jarraitu beharreko oinarritzko irizpideak ematen dituzte.

Diseinuko soluzioak, sekzioen hainbat katalogotan biltzen dira, eta bidezorua zein zelaiguneak egiteko erabiltzen dira. Proiektistek erabiltzeko errazak dira, eta hainbat material erabiliz, soluzio ugari eskaintzen dituzte. Bestalde, eraikuntzako xehetasunak era berezian lantzen dira eta, bereziak izateagatik, diseinatzeke gauza gehiago kontuan hartu beharra eskatzen duten bidezorua berezietarako soluzio espezifikoak eskaintzen dituzte.

Arau hau, bi elementu nagusitan oinarritu da. Alde batetik, bidezoruen diseinu analitikoan eta horren inguruan dagoen esperientzian. Honi esker, irizpide mekaniko eta enpirikoetan oinarrituta, sekzioen diseinua optimiza daiteke. Bestetik, azken hogeitun urteetan Foru Aldundiek eraikitako bidezoruen jokabidearen azterketan oinarritutako Euskal Autonomia Erkidegoan izandako esperientzian. Halaber, Arau honen barne sartu dituzte, lurraldean aplikatu behar izan dituzten errepideak eraikitzeke tekniken azken garapenak.

## 2. KAPITULUA HELBURUA ETA APLIKAZIO EREMUA

Errepideei eta hauen elementu funtzionaleri dagokienez, Arabako Lurralde Historikoko errepideen 20/1990 Foru Arauan, Bizkaiko errepideen 2/1993 Foru Arauan eta Gipuzkoako errepide eta bideen 17/1994 Foru Arauan ezarritakoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Historikoetako errepide-sareko errepide berrietako eta eginak daudenak konpontzeko bidezoruen proiektuetan aplikatuko da arau hau. Hori guztia, Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Plan Nagusia Arautzen duen 2/1989 Legearen 7. artikulua betez.

Arau honen esparrutik kanpo geratuko dira, komunikazioko udal edo tokiko barne-sareko errepideak, betiere hiri barruko errepide-zati bezala kalifikatzen ez dituzte.

Zerbitzuan dauden errepideetako bidezorua berritzeko proiektuetan ez dute aplikatuko, baldin eta ez dituzten errepide horiek osorik berriz egiten.

nes Forales de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa y el CEDEX, en el marco de un convenio de colaboración entre el Gobierno Vasco y el Centro de Estudios de Carreteras del CEDEX. Antes de su redacción definitiva el documento ha sido sometido al análisis de una comisión de expertos a nivel nacional constituida ex profeso e integrada por técnicos de probada experiencia en el diseño y construcción de firmes de carreteras.

En la Norma se dan los criterios básicos a seguir para el proyecto de firmes de nueva construcción en el País Vasco, así como para la reconstrucción total de los existentes.

Las soluciones de diseño se incluyen en una serie de catálogos de secciones, tanto para la constitución de los firmes como de las explanadas, de sencilla utilización por parte de los proyectistas, y en los que se ofrece una amplia gama de soluciones con diferentes materiales. Además, se abordan de forma especial los detalles constructivos y se ofrecen soluciones específicas para firmes especiales que, por su singularidad, precisan de consideraciones adicionales para su diseño.

La elaboración de esta Norma se ha basado en dos pilares fundamentales. De un lado el diseño analítico de firmes y la experiencia ya existente al respecto, que permite optimizar el diseño de las secciones en base a consideraciones mecánico-empíricas. De otro, la experiencia en el País Vasco, a partir de un estudio del comportamiento de los firmes construidos por las Diputaciones Forales en los últimos veinte años. También han sido incorporados a esta Norma los últimos desarrollos en la técnica de la construcción de carreteras que se han considerado de aplicación en el territorio.

## CAPÍTULO 2 OBJETO Y ÁMBITO DE APLICACIÓN

El ámbito de aplicación de la presente Norma son los proyectos de firmes de carreteras de nueva construcción, y los de acondicionamiento o mejora de las existentes pertenecientes a la red de carreteras de los Territorios Históricos del País Vasco según se establece en la Norma Foral 20/1990 de carreteras del Territorio Histórico de Álava, de la Norma Foral 2/1993 de carreteras de Bizkaia y de la Norma Foral 17/1994 de carreteras y caminos de Gipuzkoa, en lo relativo a las carreteras y sus elementos funcionales. Todo ello en cumplimiento del artículo 7 de la Ley 2/1989, Reguladora del Plan General de Carreteras del País Vasco.

Se excluye del ámbito de esta Norma, las vías que constituyan la red interior municipal o local de comunicaciones, siempre que no se hallen expresamente calificadas como tramos urbanos de carreteras.

No será aplicable a los proyectos de rehabilitación de firmes de carreteras en servicio salvo en el caso de reconstrucción total del mismo.

Ez dute bidezorua zatika eraikitze aukera ikusten, behin-behineko obrak ez badira eta soluzio hau proiektuan sartu badute.

Arau honek, bertan esplizituki kontuan hartutako kasuetarako bakarrik balioko du. Bestelako kasurik emanez gero, hartutako soluzioak justifikatu egin beharko dituzte, arauko testuan eta honi erantsitako dokumentuetan ematen dituzten gomendioak eta printzipioak errespetatuz. Dena den, justifikazio horiek, kasu bakoitzean, erabaki horiek hartzea dagokion administrazio eskudunak onartu beharko ditu.

### 3. KAPITULUA SAREAREN HIERARKIZAZIOA

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Historikoak titular diren errepideak, bakoitzaren funtzionaltasunaren arabera honela hierarkizatuko dituzte: Lehentasuneko Intereseko Sarea, Oinarrizko Sarea, Eskualdeko Sarea, eta Tokiko Sarea. Gainera, Araban beste hierarkia bat erantsi dute: Auzo Sarea; bai eta Bizkaian ere: sare osagarria Eremu Metropolitanarrean.

Lehentasuneko intereseko sarea.– Autobide, autobia eta errepide azkarrez, eta honako talde hauetan sartuko diren errepide arruntez osatua:

- Nazioarte-mailako trafiko-ibilbideak.
  - Mugetara heltzeko ibilbideak.
  - Ibilbide luzeko autonomiarreko trafiko handia jasango duten ibilbideak.
  - Garraio astunak edo, barruko zein kanpoko merkantzia-arriskuko karga handiak garraiatzen dituzten ibilbidea.
  - Interes orokorreko portu eta aireportuetarako sarrerak.
- Oinarrizko sarea.– Lehentasuneko Intereseko Sarean sartzen ez diren autobia edo errepide arrunten osatzen dute. Errepide horiek:
- Elkarren ondoan dauden bi lurralde historikotako eskualdeak, edo beste autonomia erkidego batzuetako eskualdeekin lotzen dituzte, betiere bertatik trafiko-bolumen garrantzitsua igarotzen bada.

– Lurralde Historikoko egitura-bideak, ibilbide osoak osatzen dituzte.

Sare osagarria.– Hierarkizazio hau Bizkaiko Lurralde Historikoan bakarrik erabiltzen dute. Oinarrizko eta Lehentasuneko Intereseko Sareetako trafiko handiko ibilbideen eta hiriko bide nagusien arteko trantsizioa errazten duten hiriko bideak osatzen dute.

Eskualdeko sarea.– Trafiko handiegirik izan gabe, Lurralde Historiko barruan elkarren artean mugan dauden eskualdeak lotzen dituzten errepideak osatzen dute.

No se contempla la construcción de firmes por etapas salvo en el caso de obras provisionales y siempre que esta solución esté incluida en el proyecto.

Esta Norma sólo será válida para aquellos supuestos considerados explícitamente en la misma. Si se dieran otros, se deberán justificar las soluciones adoptadas manteniendo los principios y recomendaciones que se dan tanto en el texto normativo como en los documentos anejos. En cualquier caso, dichas justificaciones deberán ser aprobadas por la administración competente en cada caso.

### CAPÍTULO 3 JERARQUIZACIÓN DE LA RED

Las carreteras cuya titularidad corresponde a los Territorios Históricos del País Vasco se jerarquizan atendiendo a su funcionalidad en: Red de Interés Preferente, Red Básica, Red Comarcal y Red Local. Además Álava incluye una jerarquía adicional: la Red Vecinal; así como Bizkaia: la red complementaria en el Área Metropolitana.

Red de interés preferente.– Constituida por autopistas, autovías y vías rápidas, y aquellas carreteras convencionales que se determinen como:

- Itinerarios de tráfico de carácter internacional.
- Itinerarios de acceso a pasos fronterizos.
- Itinerarios que soporten tráfico interautonómicos importantes de largo recorrido.
- Itinerarios por los que discurre un volumen considerable de transportes pesados o carga apreciable de mercancías peligrosas, tanto exteriores como interiores.
- Accesos a puertos y aeropuertos de interés general.

Red básica.– Constituida por autovías o carreteras convencionales, que sin pertenecer a la Red de Interés Preferente, constituyen:

– Conexión de comarcas vecinas de dos Territorios Históricos o con otras Comunidades Autónomas siempre que tengan tráfico importante.

– Vías estructurantes del Territorio Histórico, formando itinerarios completos.

Red complementaria.– Esta jerarquización tan solo está empleada en el Territorio Histórico de Bizkaia. Constituida por viales urbanos que facilitan la transición entre los itinerarios de alta capacidad de las redes Básica y de Interés Preferente con las arterias urbanas.

Red comarcal.– Está constituida por aquellas carreteras que, sin un tráfico importante, comuniquen comarcas vecinas dentro del Territorio Histórico.

Tokiko sarea.— Aurreko sailkapenetatik kanpo geratzen diren errepideak. Araban, bestalde, auzo-saretik bereizteko zehaztasunak ezartzen dituzte.

Auzo sarea.— Hierarkizazio hau Arabako Lurralde Historikoan baino ez da erabil-tzen. Aurreko ataletan definitutako sareetatik kanpo geratzen diren errepideek osatuko dute.

#### 4. KAPITULUA OROKORREAN KONTUAN HARTU BEHARREKOAK

##### SARRERA

Errepide bateko bidezoruaren neurketa, errepidea egingo den lurren ezaugarriek eta proiektu-denboraldian aurreikusten den trafikoak baldintzatzen dute. Neurtzeko, ondoren aipatuko ditugun azterketak egin behar dira, eraikuntza-proiektuaren bidezoruen azterketari buruzko eranskinean sartuko dira. Azterketak:

1. Proiektuko denboraldian bidezoruak jasango duen trafikoaren analisisia.
2. Gurutzatutako lurren ezaugarri geoteknikoak eta lurreko obren definizioa.
3. Bidezoruko geruza eta zelaigunetarako lurzorua eta material eskuragarriak identifikatzea.
4. Zelaigune Hobetuaren definizioa.
5. Bidezoruak neurtzea eta errodadura-geruza aukeratzea.
6. Bidezorua behar bezala egiteko, obra programatzea.

##### TRAFIKOAREN AZTERKETA

«Proiektu-trafikoa» izeneko 5. kapituluan eta «Trafikoko azterlanak» izeneko 1. eranskinean adierazitako irizpideen arabera egingo da. Azterlanaren emaitzen arabera, errepide-zatia zabalduko urtean aurreikusitako ibilgailuen guztizko IMDa, ibilgailu astunen ehunekoa, Proiektu Trafikoa eta Proiektu Trafikoko kategoria zehaztuko dituzte.

##### LURREN EZAUGARRI GEOTEKNIKOAK

Trazak gurutzatzen duen lur naturala aztertuko dute. Espainiako Institutu Teknologiko eta Geomineroak argitaratutako mapa geologiko, korridoreen alde aurreko azterketa, eta abarretan oinarrituko dira, eta eraketak identifikatzea eta 1:5.000 eskalan ibilbidearen lehen zatikatzea identifikatzea ahalbidetuko duen xehetasuneko azterlan geologikoarekin osatuko dute. Xehetasuneko azterketarako, material-aldaketa bakoitze-

Red local.— La integrada por las carreteras que no pertenezcan a ninguna de sus clasificaciones anteriores. Además en Álava se establecen matizaciones que la distinguen de la red vecinal.

Red vecinal.— Esta jerarquización tan solo está empleada en el Territorio Histórico de Álava. Está constituida por las carreteras que no se hallen integradas en ninguna de las redes definidas en los apartados anteriores.

#### CAPÍTULO 4 CONSIDERACIONES GENERALES

##### INTRODUCCIÓN

El dimensionamiento del firme de una carretera es función de las características de los terrenos sobre los que se van a apoyar y del tráfico que se prevé durante el período de proyecto. El dimensionamiento necesita de los siguientes estudios, que se incluirán en el Anejo de estudio de firmes del proyecto de construcción:

1. Análisis del tráfico que soportará el firme durante el período de proyecto.
2. Caracterización geotécnica de los terrenos atravesados y definición de las obras de tierra.
3. Identificación de suelos y materiales disponibles para explanadas y capas de firme, incluyendo residuos o materiales secundarios.
4. Definición de la Explanada Mejorada.
5. Dimensionamiento de los firmes y selección de la capa de rodadura.
6. Programación de la obra para la correcta ejecución del firme.

##### ANÁLISIS DEL TRÁFICO

Se realizará de acuerdo con los criterios indicados en el capítulo 5 «Tráfico de proyecto» y en el anejo 1 «Estudios de tráfico». Como resultado del estudio se determinará la IMD total de vehículos prevista en el año de puesta en servicio del tramo, el porcentaje de vehículos pesados, el Tráfico de Proyecto y la categoría de Tráfico de Proyecto.

##### CARACTERIZACIÓN GEOTÉCNICA DE LOS TERRENOS

Se reconocerá el terreno natural que atraviesa la traza. Se partirá de los mapas geológicos publicados por el Instituto Tecnológico y Geominero de España, estudios previos de corredores, etc., complementados con un estudio geológico de detalle que permita la identificación de las formaciones y una primera tramificación del trazado a escala 1:5.000. Para el estudio de detalle se efectuará una calicata por cada cambio de material,

ko laginketa egingo dute, eta gutxienez bat, 300 m bakoitzeko T2 edo trafiko-kategoria handiagoekin (ikus 5. kapitulua), edo 500 m bakoitzeko trafiko-kategoria txikiagoekin. Laginketa bidez bidezorua zimentatzeko lurzoru naturala ezagutu ezin duten ebaketa egindako zatietan, 500 m bakoitzeko edo ebaketa bakoitzeko zundaketa mekanikoa egingo dute. Laginketek eta zundaketek, edo lubeta, harbeta edo zagorren definizioek, azpiko luraren karakterizazioa ahalbidetu beharko dute, Zelaigune Hobetuaren oinarria baino gutxienez 2 m beherago.

Bidezorua aztertzeke, lurzoruak, identifikazio-entseguen (granulometria, Atterberg-eko mugak eta hezetasun naturala) eta kimikoen (igeltsuak, sulfatoak eta gatz disolbagarriak eta materia organikoa) arabera bereizi behar dira. Horrekin batera, Proctor dentsitate maximoa, CBR indizea, puze librea eta kolapso-entseguan asentuaren datuak emango dituzte. Ebaketetan, CBR indizea, SPT entseguen emaitzak kontuan hartuta kalkulatu ahal izango da, behar bezala justifikatutako korrelazioen bitartez. Datu hauekin lurzoruak, ezegoki edo marjinal, onargarri, egoki edo aukeratu bezala definitu ahal izango dira, PG-3aren 330. artikulua, eta «Zelaigune Hobetua» izeneko 6. kapituluaren adierazitako agindu osagarrien arabera.

Gutxienez 500 m-ko luzera izan behar duten azpiko lurzoru homogeneousko zonetan banatuko da traza. Azterlan geoteknikoaren barne sartzen da profil geologiko eta geotekniko bat. Bertan, aurkitutako lurrak definitu eta bereiziko dituzte, dagozkion zonen arabera zatiketa egingo dute, bakoitzeko lurzoruaren adieraziko dute, eta maila freatikoren egoera bilduko dute.

#### LURZORU ETA MATERIAL ERABILGARRIAK IDENTIFIKATZEA

Zonan libre dauden lurzoru eta agregakinen inbentarioa egingo dute, euren ezaugarri eta bolumen erabilgarriekin batera. Halaber, erosteko, garraiatzeko eta obran jartzeko prezioaren balorazioa egingo dute.

Inbentarioan sartuko dituzte, ezaugarri tekniko eta ekonomikoengatik obran erabili ahal izango dituzten hondakin edo azpiproduktuak. Beste hainbaten artean, altzairutegiko zepak, mina-esterilak, errauts hegalariak, pneumatiko zaharrak, bidezoruko material birziklatuak eta eraistetatik jasotako materialak.

#### ZELAIGUNE HOBETUA HAUTATZEA

Zelaigune hobetua, 6. kapituluaren aurredefinitutako artean aukeratu dute, azpiko lurzoruaren, us-tezko trafikoaren, aurreikusitako bidezorua eta zonako lurzoruaren arabera.

Zelaigune hobetua, azpiko lurzoru homogeneousko zonen arabera definituko da, zelaigune-kategoria bereko

y al menos, una en cada 300 m con categorías de tráfico T2 o superiores (ver capítulo 5) o cada 500 m con categorías de tráfico inferiores. En los tramos en desmonte en los que no sea posible reconocer el terreno natural de cimientado del firme con calicatas se efectuará un sondeo mecánico cada 500 m o al menos uno por desmonte. Las calicatas y sondeos, o la definición de terraplenes, pedraplenes o todo-unos deberán permitir la caracterización del terreno subyacente al menos 2 m bajo el apoyo de la Explanada Mejorada.

Para el dimensionamiento de firmes es necesario que los suelos estén caracterizados mediante ensayos de identificación (granulometría, límites de Atterberg y humedad natural) y químicos (yesos, sulfatos y sales solubles y materia orgánica), complementados con la densidad máxima Proctor, el índice CBR, el hinchamiento libre y el asiento en ensayo de colapso. En desmontes, el índice CBR se podrá estimar a partir de resultados de ensayos SPT mediante correlaciones debidamente justificadas. Con estos datos se podrán definir los suelos como inadecuados o marginales, tolerables, adecuados o seleccionados según el artículo 330 del PG-3 y las prescripciones complementarias señaladas en el capítulo 6 «Explanada Mejorada».

La traza se dividirá en zonas de terreno subyacente homogéneo, que deben tener una longitud mínima de 500 m. En el estudio geotécnico se incluirá un perfil geológico-geotécnico en el que se definan y caractericen los suelos encontrados, se realice la correspondiente tramificación en zonas, se señale el suelo característico de cada una, y se recoja la situación del nivel freático.

#### IDENTIFICACIÓN DE SUELOS Y MATERIALES DISPONIBLES

Se realizará un inventario de suelos y áridos disponibles en la zona, acompañando su caracterización y el volumen utilizable, y realizando una valoración del precio de adquisición, transporte y puesta en obra.

Se incluirán en el inventario los residuos o subproductos cuyas características hagan posible, técnica y económicamente, su utilización en la obra. Entre otros, las escorias de acería, los estériles de mina, las cenizas volantes, los neumáticos fuera de uso, los materiales reciclados de firme y los materiales procedentes de demolición.

#### SELECCIÓN DE LA EXPLANADA MEJORADA

La explanada mejorada se seleccionará de entre las predefinidas en el capítulo 6, en función del terreno subyacente, el tráfico esperado, el firme previsto, la experiencia existente y los suelos presentes en la zona.

La explanada mejorada se definirá en función de las zonas de terreno subyacente homogéneo de tal manera

gutxienez kilometro bateko proiektu-zatiak lortzeko, eta horrenbestez, bidezoru-sekzio berarekin, zati txikia-goak hobeto egokitzen diren behar bezala justifikatutako kasu espezifikoetan izan ezik.

#### BIDEZORUAK DISEINATZEA

Bidezorua, «Bidezoruko sekzioak galtzadan» izeneko 9. kapituluan sartutako aurretik definitutako aukeren artean aukeratuko dute, aurreikusitako trafikoa eta definitutako zelaigunea kontuan hartuta. Bidezoruko sekzioen katalogoan hainbat tipologia hartu dituzte kontuan, eta diseinu-arloan irtenbide ugari eskaintzen dituzte. Aztertutako proiekturako irtenbide egokiena aukeratzeko, obra-unitateak egiteko eskura dauden materialak, drainatzeko beharrak, zona horretako esperientzia, aldameneko bidezoruen osagaiak eta motak, eta eraikitze eta kontserbatzeko kostuak hartuko dituzte kontuan. Proiektuko bidezoruei buruzko eranskinean, aukeratutako bidezoruen proposamena aurkeztu beharko da behar bezala justifikatuta.

Katalogoan adierazitako lodierak, proiektuko gutxienezko lodierak dira, eta obra-unitate bakoitzerako Baldintza Teknikoen Agiri partikularretan exijitu beharko dituzte.

Bazterbideetan erabiltzeko bidezoruaren definizioa, «Bidezoruko sekzioak bazterbideetan» izeneko 10. kapituluan ematen dute, trafiko-kategoriaren eta galtzadako bidezoru-motaren arabera. «Bidezoru berezietako sekzioak» izeneko 11. kapituluan, zeharbide, tunel, fabrikako obren taulak, galtzadak zabaltzea, aparkatzeko edo gelditzeko zonak, balaztatze-oheak edo behin-behinekoko bidezoruen gisako zona berezietan bidezoruproiekturako trafikorearen eraginaren edo baldintza partikularren mende dauden gomendioak jasotzen dituzte.

«Bidezorurako materialak» izeneko 7. kapituluan, bidezoru-sekzio bakoitzerako material egokiak aukeratzeko irizpideak biltzen dira. Bertan bereziki, nahaste bituminosoko geruzen lodiera eta geruza-motari buruzkoak aztertzen dituzte. Bestalde, hartxintzar-zepa gisa, Euskal Autonomia Erkidegoan asko erabiltzen dituzten materialak erabiltzea ikusi dute. Nahaste bituminosoetan erabiltzeko betun-mota aukeratzeko eta zementuz tratatutako geruzen aurrepitzadurari buruz erabakitze kontuan hartzen da klima. Bi mapa egin dituzte, bat Udako Zona Termikokoa eta bestea Zona Klimatikokoa, «Klima» izeneko 8. kapituluan bildutako azken hogeita hamar urteei buruzko datu klimatikoetan oinarritua.

«Eraikuntzako alderdiak» izeneko 12. kapituluan, eraikitze hainbat gauza hartzen dira kontuan eta, bereziki, bidezoruaren geruzen eraikuntzako gainzabalerak eta, zirkulazio-noranzko bakoitzeko bi errei edo gehiagoko galtzadetarako lodiera diferenteko bidezoruen erabilera. Halaber, bidezorua drainatzeko jarraibideak ematen dituzte.

que se consigan tramos de proyecto de al menos 1 km con la misma categoría de explanada, y por tanto con la misma sección de firme, salvo casos específicos debidamente justificados en los que sean aconsejables tramos menores.

#### DISEÑO DE LOS FIRMES

El firme se seleccionará entre las soluciones predefinidas incluidas en el capítulo 9 «Secciones de firmes en Calzada», en función del tráfico previsto y la explanada definida. En el catálogo de secciones de firme se han considerado diversas tipologías, y se ofrece un amplio abanico de soluciones de diseño. Para la selección de la solución más adecuada para el proyecto considerado, se tendrán en cuenta los materiales disponibles para ejecutar las distintas unidades de obra, las necesidades de drenaje, la experiencia en la zona, el tipo y comportamiento de los firmes adyacentes y los costes de construcción y conservación. El anejo de firmes del proyecto deberá incluir una propuesta justificada de los firmes seleccionados.

Los espesores indicados en el catálogo son espesores mínimos de proyecto, y se deberán exigir en los Pliegos de Prescripciones Técnicas Particulares para cada una de las unidades de obra.

La definición del firme a utilizar en los arcenes se presenta en el capítulo 10 «Secciones de firmes en arcenes», en función de la categoría de tráfico y del tipo de firme de la calzada. En el capítulo 11 «Secciones de firmes especiales» se recogen las recomendaciones para el proyecto de firmes en zonas singulares, como travesías, túneles, tableros de obras de fábrica, ensanches de calzada, áreas de estacionamiento o parada, lechos de frenado o firmes provisionales, sometidas a acciones de tráfico o condiciones particulares.

En el capítulo 7 «Materiales para el firme» se incluyen los criterios para seleccionar los materiales más adecuados para cada sección de firme. Se abordan de forma especial los referentes al tipo y el espesor de las capas de mezcla bituminosa. Se contempla además la utilización de materiales que, como la gravaescoria, son frecuentemente empleados en el País Vasco. El clima se considera para la selección del tipo de betún a utilizar en las mezclas bituminosas y para la decisión sobre prefisuración de capas tratadas con cemento. Se han elaborado dos mapas, uno de Zona Térmica Estival y otro de Zona Climática en base a datos climáticos correspondientes a un período de treinta años, que se recogen en el capítulo 8 «Clima».

En el capítulo 12 «Aspectos constructivos» se recogen diversas consideraciones constructivas y, en particular, los sobrecanchos de construcción de las diferentes capas del firme y el uso de firmes de espesor variable para calzadas con dos o más carriles por sentido de circulación. También se dan directrices para el drenaje del firme.

**BIDEZORUA BEHAR BEZALA JARTZEKO, OBRA PROGRAMATZEA**

Eraikitzeko proiektuaren bidezoruen azterlan-eranskinean, bidezorua behar bezala ezartzeko, obraren antolakuntzan kontuan hartu behar diren irizpideak adieraziko dira.

Beste hainbat lan artean, honako lan hauek planifikatuko dira: betetako zuloen oinarriak finkatu ahal izateko lurren mugimenduaren eta bidezorua egitearen arteko desfasea; erantsitako obretan zelaiguneak egiteko lanen aurretik, fabrika-obretako estradosetan lubetak eraikitzea; edo, lurzoru egonkortuen edo zementudun materialen gainean zirkulazioa saihestu edo murrizteko obra-trafikoa antolatzea.

**5. KAPITULUA  
PROIEKTU TRAFIKOA****PROIEKTU TRAFIKOKO KATEGORIA**

Proiektu Trafikoa, proiektuaren epean, proiektuko erreian zirkulatzeko aurreikusten den ibilgailu astunen kopurua da. Proiektu Trafikoa 5.1. taularen arabeko kategorietan sailkatuko da. Hala ere, 1. eranskineko A1.4 taulan, errepide-zatia irekitako urtean proiektuko erreian ibilgailu astunen IMDaren arabeko sailkapen sinplifikatu bat egiten da.

**PROGRAMACIÓN DE LA OBRA PARA LA CORRECTA EJECUCIÓN DEL FIRME**

En el anejo de estudio de firmes del proyecto de construcción se señalarán los criterios a tener en cuenta en la organización de la obra para una correcta ejecución del firme.

Se planificarán, entre otras tareas, el desfase entre el movimiento de tierras y la ejecución del firme para permitir la estabilización de los asientos de los rellenos, la construcción de los terraplenes en los trasdoses de las obras de fábrica antes de las operaciones de ejecución de explanadas en las obras anexas, o la organización del tráfico de obra para evitar o minimizar la circulación sobre los suelos estabilizados o los materiales con cemento.

**CAPÍTULO 5  
TRÁFICO DE PROYECTO****CATEGORÍA DE TRÁFICO DE PROYECTO**

El Tráfico de Proyecto se define como el número acumulado de vehículos pesados que se prevé que circularán por el carril de proyecto durante el período de proyecto. El Tráfico de Proyecto se clasificará en categorías de acuerdo con la tabla 5.1, si bien, en la tabla A1.4 del anejo 1 se incluye una clasificación simplificada en función de la IMD de vehículos pesados en el carril de proyecto en el año de puesta en servicio del tramo.

**5.1 taula. Proiektu Trafikoko Kategoriak**

	<b>KATEGORIA</b>	<b>PT (milioitan)</b>
	<b>T00</b>	<b>43,8 – 87,6</b>
	<b>T0</b>	<b>21,9 – 43,8</b>
<b>T1</b>	<b>T1A</b>	<b>15,3 – 21,9</b>
	<b>T1B</b>	<b>8,8 – 15,3</b>
<b>T2</b>	<b>T2A</b>	<b>4,4 – 8,8</b>
	<b>T2B</b>	<b>2,2 – 4,4</b>
<b>T3</b>	<b>T3A</b>	<b>1,1 – 2,2</b>
	<b>T3B</b>	<b>0,55 – 1,1</b>
<b>T4</b>	<b>T4A</b>	<b>0,27 – 0,55</b>
	<b>T4B</b>	<b>&lt; 0,27</b>



**Tabla 5.1. Categorías de Tráfico de Proyecto**

CATEGORÍA		TP (en millones)
T00		43,8 – 87,6
T0		21,9 – 43,8
T1	T1A	15,3 – 21,9
	T1B	8,8 – 15,3
T2	T2A	4,4 – 8,8
	T2B	2,2 – 4,4
T3	T3A	1,1 – 2,2
	T3B	0,55 – 1,1
T4	T4A	0,27 – 0,55
	T4B	< 0,27

Arau honen inguruan, honako elementu hauek hartuko dira kontuan:

– Bestelako arrazoirik ematen ez badute, bidezoruko egiturak neurtzeko proiektua 20 urterako izango da.

– Proiektuko erreia, Proiektu Trafiko handiena duena izango da.

– Autobide, autobia eta galtzada bikoitzeko errepideetako proiektuko erreia, gutxienez, T1B kategoria-rekin sailkatuko da.

– Zerbitzuko errepideetarako eta errepide-adarretarako trafikoaren inguruko kalkulurik ez badugu, errepide nagusirako definitutakoa baino hiru trafiko-kategoria beherago sailkatuko dira. Autobia-amaierako adarren, trafiko handiko bideen arteko konexio zuzenen edo industria-zonetako zerbitzu-bideen kasuan, trafikoaren azterketa espezifiko egin beharko da.

#### PROIEKTU TRAFIKOAREN KALKULUA

Proiektu Trafikoa (TP) honela kalkulatu da:

$$TP = IMD_p^{APS} \cdot 365 \cdot F \cdot \gamma_T$$

Non,

$IMD_p^{APS}$  Errepide-zatia zabalduetako urtean ibilgailu astunen Eguneroko Batez Besteko Intensitate-tatea.

F Proiektu-epetan ibilgailu astunen trafikoaren hazkuntza-faktorea.

$\gamma_T$  Trafikoko kargen haztapen-koefizientea.

En el ámbito de esta Norma se tendrán en cuenta las siguientes consideraciones:

– Salvo justificación, el periodo de proyecto para el dimensionamiento de las estructuras de firme será de 20 años.

– El carril de proyecto será aquel que presente mayor Tráfico de Proyecto.

– El carril de proyecto de las autopistas, autovías y carreteras de doble calzada se clasificará como mínimo con la categoría T1B.

– Si no se dispone de estimaciones de tráfico para las vías de servicio y los ramales, se clasificarán con tres categorías de tráfico menos que la definida para la vía principal. En el caso de los ramales de fin de autovía, conexiones directas entre vías de gran capacidad o vías de servicio en zonas industriales, se requerirá un estudio de tráfico específico.

#### CÁLCULO DEL TRÁFICO DE PROYECTO

El Tráfico de Proyecto se calculará mediante la siguiente expresión:

$$TP = IMD_p^{APS} \cdot 365 \cdot F \cdot \gamma_T$$

Donde,

$IMD_p^{APS}$  Intensidad Media Diaria de vehículos pesados en el año de puesta en servicio del tramo.

F Factor de crecimiento del tráfico de vehículos pesados durante el periodo de proyecto.

$\gamma_T$  Coeficiente de ponderación de las cargas de tráfico.

Aurreko parametroak ( $IMD_p^{APS}$ ,  $F$  eta  $\gamma_T$ ), ondoren markatuko ditugun arauen arabera baloratuko dituzte.

Proiektu Trafikoa balioztatzeko egindako analisi eta azterlan guztiak, dagokion eraikuntzako proiektuaren trafiko-eranskinean jasoko dira.

Trafiko astunaren intentsitatea ( $IMD_p^{APS}$ )

Bide-zatia martxan jartzeko urtean ibilgailu astunen Eguneroko Batez Besteko Intentsitatea kalkulatzeko, honako datu hauek hartuko dira kontuan:

– Errepide berrietan, ibilgailu astunen IMD kalkulatzeko, korridore horretako beste hainbat bidetan, abiapuntuko eta helmugako inkestetan, eta aztergai den esparruan emandako antzeko kasutan bildutako datuetan oinarritu behar dira.

– Errepideen konponketak egiteko, administrazio eskudunek egindako urteko bolumenen mapa edo txostenetan bildutako datuak hartu behar dira kontuan. Datu horiek, eskuzko bolumen edo bolumen automatikoekin osa daitezke. Trafikora zabalduko urteko IMD kalkulatzeko, bolumenaren urtean oinarrituta dagozko kalkulatuak egin behar dira.

Bi kasuetan, errepide-zati berria zabaldu ondoren, eragindako eta sortutako trafikoa zehatz-mehatz aztertu behar da. Horrek, trafikoaren inguruko kalkulatuak asko alda ditzake.

Haztapan koefizientea ( $\gamma_T$ )

Koefiziente honen balioa kalkulatzeko, gutxienez honako datu hauek ezagutu behar dira:

– Trafiko astunaren banaketa, galtzaden arabera, hala badagokio, eta erreien arabera.

– Arrisku-faktore onartua.

– Proiektatutako zatiaren luzera-aldapa.

Trafiko-kargen haztapan-koefizientea  $\gamma_T$  honako formula honen bidez kalkulatu da:

$$\gamma_T = \gamma_C \cdot \gamma_R \cdot \gamma_L$$

Bertan,

$\gamma_C$  Trafiko astuna proiektuko erreiari esleitzeko koefizientea.

$\gamma_R$  Proiektu-trafikoa kalkulatzeko aldagarritasunean kontuan hartzen duen koefizientea.

$\gamma_L$  Proiektuaren helburu den bide-zatiaren luzera-aldaparen eragina kontuan hartzen duen koefizientea.

$\gamma_C$  koefizientea, proiektuko erreiari, ibilgailu astunen guttizkoaren gutxi gorabeherako ehuneko esleitzeko erabiltzen da. Baldin eta errei bakoitzeko trafiko astunen esleipenari buruzko daturik ez bada, koefizientearen balioa 5.2 taulatik lortuko da.

La valoración de los parámetros anteriores ( $IMD_p^{APS}$ ,  $F$  y  $\gamma_T$ ) se hará conforme a las directrices marcadas a continuación.

Todos los análisis y estudios realizados para la valoración del Tráfico de Proyecto figurarán en el correspondiente Anejo de tráfico del proyecto de construcción.

Intensidad del tráfico pesado ( $IMD_p^{APS}$ )

Para estimar la Intensidad Media Diaria de vehículos pesados en el año de puesta en servicio del tramo, se atenderá a lo siguiente:

– En vías de nueva construcción, la IMD de vehículos pesados se ha de estimar a partir de los datos obtenidos en otras vías del corredor, encuestas de origen y destino, y de casos similares en el ámbito territorial considerado.

– En acondicionamientos y mejoras de carreteras, se han de tener en cuenta los datos recogidos en los informes o mapas de aforos anuales elaborados por las distintas administraciones competentes. Estos datos se pueden complementar con aforos manuales o automáticos. Para determinar la IMD en el año de apertura al tráfico se deben realizar las estimaciones correspondientes a partir del año del aforo.

En ambos casos se debe estudiar específicamente el tráfico inducido y generado después de la puesta en servicio del tramo, que puede modificar sensiblemente las estimaciones de tráfico.

Coefficiente de ponderación ( $\gamma_T$ )

Para estimar el valor de este coeficiente, se deben conocer al menos los siguientes datos:

– Distribución del tráfico pesado por calzadas, en su caso, y por carriles.

– Factor de riesgo aceptado.

– Pendiente longitudinal del tramo objeto del proyecto.

El coeficiente de ponderación de las cargas de tráfico  $\gamma_T$  viene definido por la siguiente expresión:

$$\gamma_T = \gamma_C \cdot \gamma_R \cdot \gamma_L$$

Siendo,

$\gamma_C$  Coeficiente de asignación del tráfico pesado al carril de proyecto.

$\gamma_R$  Coeficiente que tiene en cuenta la variabilidad en la estimación del tráfico de proyecto.

$\gamma_L$  Coeficiente que tiene en cuenta la influencia de la pendiente longitudinal del tramo objeto del proyecto.

El coeficiente  $\gamma_C$  se utiliza para asignar al carril de proyecto un porcentaje estimado del total de vehículos pesados. Salvo que se disponga de datos sobre asignación de tráfico pesado por carriles, el valor del coeficiente se obtendrá de la tabla 5.2.

5.2 taula.  $g_c$  koefizientearen kalkulua

BIDE MOTA	DESKRIBAPENA		$g_c$
GALTZADA BAKARREKOA	GALTZADAREN ZABALERA	$\geq 6$ m	0,50
		$\geq 5$ y $< 6$ m	0,75
		$< 5$ m	1,00
GALTZADA BIKOITZEKOA	NORANZKO BAKOITZEKO ERREIAK (*)	2	0,50
		3 edo gehiago	0,45

Tabla 5.2. Estimación del coeficiente  $g_c$

TIPO DE VÍA	DESCRIPCIÓN		$g_c$
DE CALZADA ÚNICA	ANCHURA DE CALZADA	$\geq 6$ m	0,50
		$\geq 5$ y $< 6$ m	0,75
		$< 5$ m	1,00
DE DOBLE CALZADA	CARRILES POR SENTIDO (*)	2	0,50
		3 ó más	0,45

$\gamma_R$  maiorazioko koefizientea, proiektu-trafikoa kalkulatzeko arrisku-maila neurtzean kontuan hartzeko erabiltzen da. Arrisku-maila, sare-motaren eta trafiko-intentsitatearen araberakoa izango da, 5.3 taulan adierazten den bezala.

El coeficiente de mayoración  $\gamma_R$  se utiliza para asumir en el dimensionamiento un nivel de riesgo en la estimación del tráfico de proyecto. El nivel de riesgo será función del tipo de red y de la intensidad de tráfico según se indica en la tabla 5.3.

5.3 taula.  $g_R$  koefizientearen kalkulua

SARE MOTA	ERREPIDEAREN IMD, ABIAN JARTZEKO URTEAN	$g_R$
NAGUSIA(*)	$\geq 20.000$	1,4
	10.000 - 20.000	1,3
	$< 10.000$	1,2
BESTEAK	$\geq 2.000$	1,1
	$< 2.000$	1,0

**Tabla 5.3. Estimación del coeficiente  $g_R$** 

TIPO DE RED	IMD de la carretera en el año puesta en servicio	$g_R$
PRINCIPAL(*)	$\geq 20.000$	1,4
	10.000 - 20.000	1,3
	$< 10.000$	1,2
RESTO	$\geq 2.000$	1,1
	$< 2.000$	1,0

$\gamma_L$  maiorazio-koefizientea erabiltzen da, ibilgailu astunen abiadura murriztearen ondorioz, arrapalan dau den zonetan material bituminosoetan ematen den zuruntasunaren murriztea neurketan kontuan hartzeko.  $\gamma_L = 1,3$  balioko koefizientea hartuko dute, arrapalan dagoen proiektuaren azpizatietan bakarrik, eta zati horren luzera-aldapa % 5 baino handiagoa bada eta guxtienez 500 m-tan ematen bada. Beste kasu guztietan  $\gamma_L = 1,0$  balioa hartuko dute.

#### Trafikoa hazteko faktorea (F)

Hazteko faktoreak (F), trafikoa kalkulatzeko garaian, aztertuko den proiektu-epean errepidean ibiltzea espero duten trafiko astunaren hazkuntza hartuko dute kontuan. Trafiko-mota honen hazkuntza-tasaren eta aztertuko den proiektu-epearen mende dago. Hazkuntza-tasa jarraitu baterako, honako espresio honen bidez definitzen da:

$$F = [(1+r)^n - 1]/r$$

Bertan,

- r Ibilgailu astunen trafikoaren urteko hazkuntza-tasa
- n Proiektu-epea

Ibilgailu astunen trafikoaren urteko hazkuntza-tasa, trafikoko azterlan espezifiko batean oinarrituta kalkulatu behar da. Hala ere, datu fidagarririk gabe, 1.600 edo handiagoko zatia martxan jartzeko urtean ibilgailu astunen IMD baterako % 4ko tasa jarraitua hartu ahal izango dute, eta % 2koa beste kasu batean.

5.4 taulan hazkuntza-faktoreak (F) ematen dira, trafikoaren urteko hazkuntza-tasa jarraituetarako.

El coeficiente de mayoración  $\gamma_L$  se utiliza para tener en cuenta en el dimensionamiento la disminución de la rigidez que se produce en los materiales bituminosos en las zonas en rampa como consecuencia de la reducción de la velocidad de los vehículos pesados. Se adoptará un coeficiente de valor  $\gamma_L = 1,3$  únicamente en aquellos subtramos del proyecto en rampa, cuya pendiente longitudinal sea superior al 5% y se mantenga en una longitud de al menos 500 m. En el resto de los casos se tomará  $\gamma_L = 1,0$ .

#### Factor de crecimiento del tráfico (F)

El factor de crecimiento, F, introduce en la estimación del tráfico el incremento de tráfico pesado que se espera que circule por la carretera durante el periodo de proyecto considerado. Depende de la tasa de crecimiento de este tipo de tráfico y del periodo de proyecto considerado; para una tasa de crecimiento constante, viene definido por la siguiente expresión:

$$F = [(1+r)^n - 1]/r$$

Siendo,

- r Tasa de crecimiento anual del tráfico de vehículos pesados.
- n Periodo de proyecto.

La tasa de crecimiento anual del tráfico de vehículos pesados debe estimarse a partir de un estudio de tráfico específico. No obstante, en ausencia de datos fiables se podrá adoptar una tasa constante del 4% para una IMD de vehículos pesados en el año de puesta en servicio del tramo de 1.600 o superior, y del 2% en otro caso.

En la tabla 5.4 se dan los factores de crecimiento, F, para tasas de crecimiento anual del tráfico constantes.

**5. 4 taula. Trafikoa hazteko faktorea (proiektu-epea: 20 urte)**

r (%)	F
2,0	25
4,0	30

**Tabla 5.4. Factor de crecimiento del tráfico (periodo de proyecto: 20 años)**

r (%)	F
2,0	25
4,0	30

Proiektu-epean zehar trafikoaren hazkuntza, kasu bakoitzean, proiektuaren zati bakoitzari lotutako atalaren gaitasunak mugatuko du.  $IMD_p$ , bide- eta zati-motari dagokion balio maximora heltzean, kalkulatzeko epearen amaierara arte balio hori hartuko da, betiere bertan dagoen errepidearen edukiera handituko ez duten jarduerak aurreikusten ez badira. Ahalmen honen balioa,  $IMD_{ri}$  dagokionean, behar bezala justifikatu beharko da dagokion azterlan espezifikoan. Kasu horretan, TRB<sup>1</sup> -eko Errepideen Edukierako Eskuliburuak erabili ahal izango dituzte.

Galtzada bakarreko, bi errei eta zirkulazio-noranzko bikoitzeko errepideetarako azterlan espezifikorik ez badago, errepide horien bolumena, 5.5 taulan adierazitako arauen arabera kalkula daitezke, betiere errepide-zatiaren ezaugarriak, kontuan hartutako hipotesitara nahikoa hurbiltzen badira.

El incremento del tráfico a lo largo del período de proyecto vendrá limitado, en cada caso, por la capacidad de la sección asociada a cada tramo del proyecto. A partir del momento en que la  $IMD_p$  alcance el valor máximo correspondiente al tipo de vía y tramo, se supondrá constantemente igual a este valor hasta el final del período de cálculo, siempre que no se prevean actuaciones que puedan incrementar la capacidad de la carretera existente. El valor de esta capacidad, en términos de  $IMD$ , se deberá justificar convenientemente en el correspondiente estudio específico, para el que se puede utilizar el Manual de Capacidad de Carreteras del TRB.<sup>1</sup>

Si no se dispone de un estudio específico, para carreteras de calzada única, dos carriles y doble sentido de circulación, se puede estimar su capacidad siguiendo las directrices que se indican en la tabla 5.5, siempre que las características del tramo se aproximen lo suficiente a las hipótesis consideradas.

<sup>1</sup> Asociación Técnica de Carreteras: *Manual de capacidad de carreteras*, "Highway capacity manual, 1994". Special Report 209, 3.ª edición. Transportation Research Board (TRB). Madrid, 1995.

<sup>1</sup> Asociación Técnica de Carreteras: *Manual de capacidad de carreteras*, "Highway capacity manual, 1994". Special Report 209, 3.ª edición. Transportation Research Board (TRB). Madrid, 1995.

5. 5 taula. Ibilgailu astunen IMD maximoa galtzada osoan

TIPO DE VÍA	BIDE ZATIA		
	LAUA	GORABEHERATSUA	MENDITSUA
7 m-ko galtzada eta $\geq 1,5$ m-ko bazterbidea	9.000	4.000	2.000
6 m-ko galtzada eta $\geq 0,5$ m-ko bazterbidea	7.000	3.000	1.500
5 m-ko galtzada bazterbide gabe	5.000	2.000	1.000

Tabla 5.5. Máxima IMD de vehículos pesados en toda la calzada

TIPO DE VÍA	TIPO DE TRAMO		
	LLANO	ONDULADO	MONTAÑOSO
Calzada de 7 m y arcén $\geq 1,5$ m	9.000	4.000	2.000
Calzada de 6 m y arcén $\geq 0,5$ m	7.000	3.000	1.500
Calzada de 5 m y sin arcén	5.000	2.000	1.000

Honako hipotesi hauek aztertu dituzte:

- % 50 kamioiak.
- FHP = 1 ; K (proiektu-orduko faktorea) = 0,10.
- Erreien araberako banaketa: 60/40.

#### 6. KAPITULUA ZELAIGUNE HOBETUA

Zelaigune Hobetua da (ikus 6.1 irudiko eskema), lurzoru-geruzen edo ekarpen-materialen multzoa, edo bidezoruaren azpian dauden egonkortzea. Horrela, bidezoruko zimenduaren euste-gaitasuna hobetu eta homogeneizatu, eraikuntza-lanak erraztu, iragazkaiztearen edo hustuketaren bidez lurzoruak uraren eraginez babestu, eta beharrezko azalera geometrikoak lortu nahi dituzte. Zelaigune Hobetua, Azpiko Lurren gainean jartzen da. Lur hauek, arlo naturalean, lurzoru naturalari dagokionean, ebakidura-hondoak osatuak daude, ekarpeneko materialak edo lurzoruak lubeten nukleoak, edo harbeta edo zagor-betegarrizko trantsizio-geruzez; eta bi egiturak mendi-hegal ertaineko sekzioetan ematen dira. Zelaigune Planoa, Zelaigune Hobetuaren goialdeko azalera da, eta honen gainean ezartzen da bidezorua.

Se han adoptado las siguientes hipótesis:

- 50% camiones.
- FHP = 1 ; K (factor de la hora de proyecto) = 0,10.
- Reparto por carriles: 60/40.

#### CAPÍTULO 6 EXPLANADA MEJORADA

Se entiende por Explanada Mejorada (véase esquema de figura 6.1) el conjunto de capas de suelos o materiales de aportación, o la estabilización de los existentes, que se encuentran bajo el firme y cuya finalidad es mejorar y homogeneizar la capacidad de soporte del cimiento del firme, facilitar las labores de construcción, proteger los suelos de la acción del agua mediante impermeabilización o evacuación, y obtener las superficies geométricas precisas. La Explanada Mejorada se apoya a su vez sobre el Terreno Subyacente, consistente en el terreno natural en fondos de desmonte, los suelos o materiales de aportación en núcleo de terraplenes o en capa de transición de pedraplenes o rellenos todo-uno, y ambas formaciones en las secciones a media ladera. El Plano de Explanada constituye la superficie superior de la Explanada Mejorada, sobre la que se apoya el firme.



#### ZELAIGUNE KATEGORIA

Eusteko gaitasunaren arabera, Zelaigune Hobetua-  
 ren barruan hiru kategoría bereizten dira: EX1, EX2  
 eta EX3. Beharrezko gutxieneko kategoría, Proiektu  
 Trafikoaren funtzioa izango da (ikus 6.1. taula).

#### CATEGORÍA DE EXPLANADA

Se consideran tres categorías de Explanada Mejora-  
 da en función de su capacidad de soporte, denomina-  
 das EX1, EX2 y EX3 respectivamente. La categoría mí-  
 nima necesaria será función del Tráfico del Proyecto  
 (véase tabla 6.1).

6. 1 taula. Zelaigune Hobetuko beharrezko kategoría

PROIEKTU TRAFIKOA	ZELAIGUNE HOBETUKO KATEGORIA
T2A edo handiagoa	EX2 edo EX3
T2B edo txikiagoa	EX1, EX2 edo EX3

**Tabla 6.1. Categoría necesaria de Explanada Mejorada**

<b>TRÁFICO DE PROYECTO</b>	<b>CATEGORÍA DE EXPLANADA MEJORADA</b>
<b>T2A o superior</b>	<b>EX2 o EX3</b>
<b>T2B o inferior</b>	<b>EX1, EX2 o EX3</b>

## SEKZIOEN KATALOGOA

